

IGELDOKO ORRI INFORMATIBOA



HERRI KONTSEILUA

**HERRI KONTSEILUA :
IGELDOTARREN NAHIAK
ETA BEHARRAK
BIDERATZEKO ELKARTEA**

Hilabete batzuk ondoren, herri kontseilua martxan dago, hilabetero biltzen da, bigarren asteartean. Herri kontseiluko kideak hauteskundeetan denon artean aukeratu genituenak diren arren, bilerak irekiak dira eta bere interesekoa den gai bat tratatzera dihoanean edonor joan daitekela ez ahaztu.

Horretaz gain, kezkak, zalantzak, arazoak dituzuenen zuen zonalde edo sektoreko ordezkariari aipatu, Herri Kontseiluak bere bileran delako gaia tratau dezan.

Herri Kontseiluko organu iraunkorra den zazpikotea ere eratu da. Zazpikotea honako kideek osatzen dute :

Alex Aisa
Josu Eskibel
Jose Ignaxio Galparsoro
Javier Iraola
Arantxa Irizar
Juankar Izagirre
Jesus Sierra

Ordezko bezala : Iñaki Aizpurua

Lehenengo orri informatiboan herri kontseiluan idazkari baten beharra zegoela aipatu genizuen. Deialdira pertsona bakarra aurkeztu zen eta Herri Kontseiluak hiru hilabetetarako izendatu zuen. Idazkari hau Marian Galparsoro da.

Hasera batetan planteatzen zen bezala, batzordeak ere eratu dira . Batzorde bakoitzak gai ezberdinak landuko ditu eta oso garrantzitsua da herriko jendeak hauetan partehartzea bilera egunak honakoak dira :

*hirigintza batzordea : hilabetero lehenengo asteartean. 21:00etan Itsas Aurre etxean.

*kultura batzordea: hilabetero lehenengo asteazkenean. 21:00etan Itsas Aurren.

*mantenimendu batzordea : hilabetero azken asteartean. Gaueko 21:00etan Itsas Aurren biltzen da.

Herri Kontseiluaren eta honek egiten dituen gauzen berri emateko panel berezi bat jarriko da Itsas-Aurre etxe kanpoaldeko paretan. Honetaz gain zonaldetan dauden panelak ere konponduko dira.

Bukatzeko, estatutoak onartu direnez Herri Kontseilua legalizatua dagoela esan behar da.

IRRATIA

Irratia entzuten duzuen guztiak ongi dakizuen bezala, udara baina pixkat lehenagotik geldiene bat izan da, arazo teknikoak tarteko. Arazo horiei konponbidea ematen ari zaie eta lehenbaitlehen martxan jartzeko asmoa dago. Zentzu honetan interesa izan dezketen igeldotarrak animatu nahi genituzke, irratia aurrera ateratzea lan handia bait da. Horretarako Alex Aisarekin harremanetan jarri.

ANTOLATU DIREN GAUZAK.

Herriko festak : San Pedro jaiak aspalditxo bukatu ziren. Giro aparta izan zen , jai batzordeak lan polita egin zuen. Herriko tabernari dagokionez, festak baino lehen gazte asanbladak txozna bat jartzeko asmoa adierazi zuen herri kontseiluko bilera batetan, txosna ezberdinak jartzea baino hobe zela

banatzea pentsatu zen, horrela gazte asanbladako gazteek herriko tabernan lan egin zuten Herri Kontseiluak planteaturikoa onartuz. Ateratako dirua horrela banatu da :

- herri kontseilua :%50
- jai batzordea :%35
- gazte asanblada :%15

San Ixidro eguna: Garai txarra zela eta ez zen espero bezain ondo atera, zorretan gelditu ginen, hala ere aurreko urtetik irabazi batzuk bazeudenez, horrekin konpensatu ziren.

Zaharren eguna : Aurten Zaharren eguna antolatzeko ardura Herri Kontseiluak hartu zuen. Urriak 20ean ospatu zen, giro aparta izan zelarik. Antolaketari dagokionean, eta nahiz eta jubilatuekin egun hau zela eta bileraren bat edo beste egin, hauek gehiago partehartu beharko luketela baloratu zen.

Egun hau antolatzeko laguntza herriko hainbat tabernek eman zuten.

Sarrerak 235.520 pzta izan ziren, irteerak berriz 339.705 pzta, diferentzia, hau da 104185 pzta Herri Tabernan ateratako diruarekin ordaindu zen.

MUS TXAPELKETA


Betiko ohiturei jarraikiz eta Herri Kontseiluak antolaturik, aurtengo mus txapelketa urtarrilaren 24ean hasi zen. Hemendik aurrera ostiralero ospatuko da gaueko 22 :15etan Itsas Aurre etxean.

ESKERRIK ASKO AUZOLAN !

Hainbeste denboran Igeldoren alde lanean aritu den Auzolan elkarteak desegin egin da. Elkarte honek zituen xoxak eta materialak Herri Kontseiluaren esku utzi ditu. Horregatik eskerrik beroenak eman nahi dizkiogu auzolani eta bere inguruan lanean ibili diren igeldotar guztiei, Igeldoren alde hainbeste lan egiteagatik eta azken orduan herri kontseiluarekiko izandako detailetxo horregatik.

HERRI KONTSEILUAREN ANAGRAMA EGITEKO LEHIAKETA.

Herri Kontseiluak antolatu du, oinarriak, epeak eta gainontzekoak beste orritxo batetan argitaratuko dira.



UDALETXEARI EGINDAKO ESKAERAK.

Eskatu diren gauzak asko direnez, guztien artean, eta duten urgentzia kontutan hartuz, lehenetsunak jartzea erabaki da. Udaletxeari zuzendutako eskaerak honakoak dira :

*Itsas-Aurre etxearen zesioa :bilera eskatua dago. Proposamena ontzat hartu zen eta laster ematea espero da.

*Itsas-Aurre etxeko obra bukatzea.

*Herri Bideetan buzoiak jartzea.

*Bidegurutzetan ispiluak jarri, honako puntuetan gutxienez :

-Amezti garaiko baserritik bide nagusira dagoen bidegurutzean.

-Behetik gora goazela Ameztiko sarreran.

-kalonge sagardotegitik irtetzean.

*Frontoiko :obra bukatzea eta bukatzen dutenean nolabait isteko sistema bat jartzea, haurrentzat segurua izan dadin.

*Iruin baserritik kanposantu atzeko transformadore arte dihoan bidea asfaltatu.

*Pilotegi bideko aldapa asfaltatzea, bustia dagonean oso arriskutsua egoten bait da.

*Herri bideen garbiketa-konponketa

*Marabieta azpiko bidea konpondu.

*Arritxulo bidea asfaltatu

*Igoleta bidea konpondu

*Kunetak garbitzea

*Plazatik-kanpinera espaloia jartzea.

*Itsas-aurre eta eliza azpiko lurak garbitzea.

*Plaza : asfaltatu, haurrentzako iturri bat jarri,, paperontziak jarri, eserlurku batzuk jarri,

*Din-din iturria konpondu eta monumentu historiko bezala arrezagutu.

*Alkantarilatuak ematen dituen arazoak konpondu, ur zikinak zelai batetara erortzen bait dira.

*Lehertuak dauden alkantarillak konpondu. Bi puntutan gutxienez :

-Herria/Iriarte

-Amezti/Lartuondo

-Marabieta parean

*Ibaeta aldean dauden baserri batzuetara ur korrienterik iristen ez denez, arazoa konpontzea.

*Ur deposito berria.

*Amezti Garaiko parean zaborrontzia jartzea, honekin hasi dira.

*Eskolan emergentzi irteera jarri.

*Gimnasioan aspaldera jartzea.

*Goizeko bedertzietan autobusa jartzea.

Behar guztien artean sailkapen bat egin da duten urgentziaren arabera. Batzuk berehala egitea eskatzen dutelako.

Gai talde hauetako bakoitza era desberdinean lantzen dugu, urgenteak direnekin astero udaletxera deitzen da gogoratu arazteko, gainontzekoekin noizean behin edo dagokionean aurkezten dira.



**IGELDOKO HERRI KONTSEILUA
ITSAS-AURRE KULTUR ETXEA
KRISTOBAL BALENZIAGA 110 zenb
IGELDO
TF:313030**